


amarauna  MERKATARITZA SAREAN

Negozioz negozio

'Bussiness to bussiness' modako jarduerara doa dirua

Jabi Zabala • Bilbo

SAREA izugarri hedatzen ari den urteotan, modako kontzeptuen araberako aroek sailkatzen dute denbora. Esaterako, 1997an zerbitzari txikien aroa izan zen; iaz, berriz, atarien sutea piztu zen, baina hori ere gain behera doa. Aurtun, B2B edo *Bussiness to bussiness* dabil guztion ahotan; hau da, sareko negozioetan enpresak, internauterosle edo bezaro arruntei begira egon barik, tratuak beste enpresa batzuekin egitea.



'E-commerce'

Hasieran, *e-commerce* edo merkataritza elektronikoa arrunta sareko jarduerarik inportanteena izango zela usate zuten; egun, ordea, adituek diote enpresen arteko merkataritza laster zortzi aldiz handiagoa izango dela.

Lehia kontuetan, guztiak dira arerio

Enpreen arteko lehian, denak dira etsai, abiapuntuan behintzat. Baina lagunak bilatuz gero, indarra ere metatzen da. Aliantza estrategikoak bezain inportanteak dira

helburu jakin batzuetara begira egiten direnak, eta denek onura ekarriko dute. Sinergiak baliatzea, gastuak murriztea eta dirua aurrezteak bilatzen da B2B joeran. Atari bertikal berezien bidez antolatzen da negozioa: lagungarri gerta dakioken beste enpresa baten bila dabilenak bertara jotzen du, eta arloaren arabe-

ra aliatuak bilatzen ditu, bilaketa tresnen laguntzaz. Besteetan, lankidetzak *off line* sinatzen dira, baina sarea dute bizkarrezur eta lantoki. Esaterako, ordenagailuen arloan, EEBBetako hiru enpresa ekoizle nagusiak eta haien bederatzi hornitzailek enpresa bat sortu dute Interneten bidez elkarren arteko kontaktua eta salerosketa bideratzeko. Plataforma horretan, beste askoren artean, Hewlett-Packard, Compaq eta Gateway daude. Hornitzaileen artean, berriz, Samsung, NEC, Hitachi, Quantum eta beste batzuk hor dira. Kostuak izugarri merkatzen dira horrela.

Baina adibideak era askotako arlo eta enpresetan aurki ditzakegu. Gure artean, Norsis enpresak B2B arloan lan egiten du, enpresen arteko negozioen bitartekaritzan gehienbat. Bertako zuzendari Mikel Irizarren openforyou.com webguneak ideia berritzailearen saria jaso du Gipuzkoako Merkataritza Ganberaren eskutik.

Handiek, benetan interes handia

Besteak beste, bankuek (BSCH), komunikazio talde handiek (Correo taldea) eta beste hainbatek ere badituzte arlo horretarako proiektuak. Iragarpeni zehatzago erreparatu, industriako merkaturaren joerak aztertzen dituen Gartner Group ospetsuak iragarri duenez, B2B merkataritza mota izugarri haziko da 2004 urtera arte. Iaz bilioi bat liberakoa izan zen (25 bilioi pezeta), baina lau urte barru 48 aldiz gehiago izango da, guztira munduko merkataritzaren %7.

Web anti-metro
www.metrobilbao.com
Metro Bilbao
www.metrobilbao.net

B2B esplorar
www.b2ezplorer.com
Norsis
www.norsis.com

info  AMARAUNA

J. Z/Bilbo • Natxo Allende internauta eta marrazkilariak bere burua ezagutzera emateko bidea aurkitu du sarean, bai eta bide batez aberasten saiatzeko modua ere.

«metrobilbao.com» domeinua hartu eta Metro Bilbaoren aurkako webgunea eraiki du. Txartel gabe bidaiatzeagatik ezarritako isuna aitzakia, enpresaren zerbitzuagatik kezak jasoteko forum bat ezarri du. Allende ez du ezkututzen maniobra horren benetako helburua domeinua Metro Bilbaori 100 milioiren truke saltzea dela. Neska biluziz jantzi duen webgunean, ez dio ezer erabiltzaileen kezak eragin dituzten Protecsako ez. Euskararen aurka jotzen du: geltokien izenak erdaraz behar luketela esanez. «Beti Las Arenas izan dena Areeta deitza soilik

Metroa, euskara... etsai

burura dakioko». Beste internauta bat dator izenen gaiarekin, eta «Avda. J. A. Primo de Rivera-ri Sabino Arana deitza» jartzen du adibidetzat. Hainbat internauta euskaldunek aurkako erreakzioa izan dute: inork narzisismoz eta prepotentzia aritzea leporatu dio; fatxen bilgunea antolatzea eta aberastu nahi duen «larrusendoa» izatea ere leporatzen zaio. «Madrilgo eta Bartzelonako metroak ere bere izenean ditu. Akaso han ere isuna ezarri zioten?».

infula sabinoararrak dituen atzeratu bati


LABURRAK

Mendia sarean

Euskal mendizaleen ataria izateko asmoz jarri dute abian Mendikoweb webgunea. Sarea eta mendia, afizio biak dituzten internauta batzuek prestatu dute ataria, Luis Ibergallarturen gidaritza-pean. Bertan, mendizaleentzako informazioa aurki dezakegu: klubak, ibilbideak, salerosketak, agenda, eguraldia eta aterpeen gida bat. Izena gorabehera, webgunea erdaraz dago. Mendizale euskaldunek, hala ere, Ostadar mendi taldearen webgunera jo dezakete informazio bila.

Mendikoweb
www.mendikoweb.com
Ostadar
www.ostadar.org

Liburu digitala



Justo de la Cueva soziologoaren *La escisión del PNV* liburuaren edizio digitala sarean ezarri du Euskal Sare Gorriak. Liburu hau lehenago paperean argitaratu zuen Txalaparta argitaletxeak, baina aspaldi agortu ziren ale guztiak. Zip formatuan konprimituta edo online, HTML formatuan, irakur daiteke liburuak, eta bigarren edizio honetarako hitzaurre bereziak prestatu dituzte Iñaki Gil de San Vicentek eta egi-leak berak.

La escisión del PNV
http://www.basque-red.net/cas/pnv/pnv.htm

120.000 artikuluko katalogo bat kontsultatu nahiko nuke, etxetik mugitu gabe erosteko eta %5eko deskontuarekin.
Zer egin behar dut?



Interneteko zure denda
megadenda